

Olaberreka etxebizitza

Aldaerak: Santienu
Ahozkoa: Sántidxena



43° 10' 9"

2° 34' 20"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería de Olabe-erreca y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... situada en el barrio de Ocango... es de un piso bajo y alto, contiene con inclusión de su huerta y zaguan ciento setenta y dos estados equivalentes a seis áreas cincuenta y cuatro centiareas..."
DJE 4/10 or. (1878)

Bizitza biko baserri honek *Olabeengoetxea* (**Ikus Olabeengoetxea**) baserriarekin erlazio estua izan du, familia bereko kideak izanik. Inguruan pasatzen diren uren izena hartzen du honako honek, eta dokumentazioan hala izendatzen da. *Olabe Erreca* (1796) moduan aurkitzen dugu XVIII. mende amaierako su-errolan. Aldaketa gutxi jasan ditu, eta XIX. mendean ere, *Olave-erreca* (1825, PE/1825) moduan erregistratzen da 1825eko polizia-errolan. XX. mende hasieran, ahozko forma jasotzen da zenbait dokumentutan, hots, *Santienu* (1905, BUA, 40. or.), eta azken erroldetan *Olabarreca* (1967) bezala agertzen da berriro ere. Berriz *Sántidxena* moduan ezagutzen da, garai baten jabea izandako Santiago Arginzonizen izenetik dator-kiona.

Berriz inguruan XVII. mendean hain hedatuta zegoen trazan jasotako baserri etxea da,

toponimia

Sarritan esan dugun legez Bizkaian oso arrunta da etxe izenetan lehenengo osagaia auzoaren izena izatea, hemen bezala, eta bigarrena etxearena berarena, Erreka kasu honetan. Nahiz eta gaur egun erreka hitza "ibai txikia" aipatzeko erabili, antzina ez dela, urari latsa esaten zitzaion eta latsak osatzen zuen haranari erreka.

bizitza bikoia, ohiko hiru gorputzekin, ondoan beranduago atxikitako beste eraikin bat daukan arren. Oso gutxitan ikusten diren goitik behe-rako harlanduzko horma sendoak dauzka aldamenetan, bat egiten dutenak beheko solairuko alboko gorputzekin. Hauetan harri eskasagoa erabili zuten hormetan eta harlandua, eskumako leihoan. Erdian, sarritan ikusten dugun atartea dauka, egurrezko dintelduna, janbetako harkantoietan jarritakoa. Lehenengo solairu guztia eta ganbara, egurrezko egituraz armatu zen, tarteak adreiluzkoak eginaz. Horietan zabaldu ziren leihoak eta ganbara aldekoa hutsik utzi zuten, karel lana egiten duena ezik. Beranduago, atartearen gainean balkoia egin zuten, gaur egun jausita dagoena. Bi isuritako teilatudun etxea da, hegal zabalekoa eta horretarako egurrezko besoak egin zizkioten, bere horretan mantentzen direnak.